



**KRONIKA SOZIO-EKONOMIKOA**  
**2014-10-03**

## **BABES SOZIALA**

---

**Munduko jubilatuen %48-k ez du pentsiorik.** Eta jasotzen dutenen artean, %52-k ez du nahikoa jasotzen duintasunez bizitzeko. Azken urteotan aurrerapen handiak gertatu dira, herrialde askotan (Amerika eta Asia bereziki) zergek finantziatutako pentsioak martxan jarri dituztelako. Aldiz, pentsiodunen babes soziala finkatutako tokietan joera negatiboa da, eta ez dira gauza izanen jende askoren pobrezia sahiesteko.

**Babes Publikoan aldaketa sakonak.** Duintasunik gabeko enplegua onartzeko inposizioak eta gastu publikoen beherakadak Babes Publikoaren asistentzialismoa dakar, eta horrekin batera, langileen arteko jerarkizazioa eta zatiketa. Adibide on bat daukagu Espainiako Gobernuaren aurrekontuetan langabeen babesari dagokionez. Prestazio kontributiboetan 2014an baino %23 gutxiago gastatuko du (14.888 miloi euro). Aldiz, prestazio asistentzialistetan (Renta activa de Inclusión delakoa) %27 gehiago (1.400 miloi euro). Asistentzialismoa nagusitzen ari da: baldintza zorrotzak jartzen dira (adina, familia ardurak, diru-sarrerak) eta langileen indarra/boterea ahultzen du: 535 euro, kontrola, lana aktiboki bilatzeko/onartzeko presioa edo mehatxua,... Gauzak horrela, langile prekarioek ikusten dute nola haien bizitzak harrapatuta geratzen diren baldintzatutako laguntza sozial eskasak eta enplegu ezegonkor eta ziurgabetasunen artean. Babes sozialaren auzia, izan langabeziaren prestazioak, izan bestelako prestazioak (gaixotasuna, jubilatuzioa, kontziliazioa,...) langile guztien ardura da.

**Nolako Juantzar, halako Maritzar.** Holako esamoldeak usain zaharkitua du, duela gutxi Nafarroan izandako bilerak darion kiratsa bezainbeste. Euskara, euskal telebista, eskolako liburuak, lurraldeen arteko proiektu sozioekonomikoak, erabakitze eskubidea, Estatutua eta Amejoramentua,... Makina bat kontu euskal herritarren artean lubakiak, oztopoak, trabak jartzeko, beti ere, inposatutako marko juridiko-politikoaren errespetuaren izenean. Baina begira non, politika sozialetan Gasteizko eta Iruñeko Gobernuak bat egiten dute, elkarren berri izan eta ikasteko. Agenda ikusita beldurgarria da. Zertaz hitz egin dute Aburtok eta Allik? Norbere eremu autonomikoan enpleguaren aldeko politika aktiboaz, lan munduratzeko programez, familiak eta kontziliazio laguntzetaz, etorkinez, dependentziaz,... Ez da zaila imajinatzea Gai Sozialetarako bi kontseilariak, Nafarroko Jauregiaren Tronuaren aretoan bapo exerita, norgehiagoka ea zeinek murrizten duen gehiago.

## **PREKARIETATEA: BOTEREDUNEN EREDU SOZIALA**

---

**Lanaren Nazioarteko Erakundearen aholkuak.** “Soldatek produktibitatearen arabera igo egin behar dira”, “soldatek ez dute errua, are gehiago, soldaten apaltzeak okertu ditu bizi-baldintzak, eta ekonomiaren desorekak areagotu”. “Beharrezkoa da enpleguaren kalitatea hobetzea eta Gizarte Segurantzaren prestazioak langabeziak eragindako pertsona guztiengana ailegatu beharko lirateke”. Orain Lanaren Nazioarteko Erakundeak bota du, duela gutxi OCDE-k. Ezin dugu ahaztu testuingurua: ez da inondik ere antzematen ekonomiaren errekupeziorik. Aurreikuspenak txarrak dira: hazkundearen aurreikuspenak motelak dira oso hurrengo bi urteetarako. Elite ekonomiko eta politikoen artean urduritasuna eta desadostasunak antzematen dira, eta mezu kontrajarriak ari dira bidaltzen etengabe. Batzuek hasiak dira esaten Europako

aginte tokietan desesperazioaren usaina zabaltzen ari dela. Austeritateak, pribatizazioek, soldaten murrizketak ez dute balio (eta ez dute balioko) izan hazkunde fase batean sartzeko. Hau ez da krisitik ateratzea. Haien kezka eta beharra nola kontrolatu langileok krisi luze eta iraunkor batean.

**Ez da iruzurraren kontrako politika, babes sozialaren kontrakoa baizik.** Baldintzak gogortu, zenbatekoak izoztu, kriminalizazioa, mehatxuzko eskutitzak dirua bueltatzeko eskatuz, jendearen izenak boletinetan,... PP, UPN, PNV, PSE ados jarri dira eskubide sozialak eta babes sozialaren beharra zalantzan jartzeko. Iruzurra, alferrak, gezurrak, ziurgabetasuna, pressing, mehatxuak, susmoak, egiazko pobreak eta ez direnen bereizketa, bizitza pribatuetan eskua sartu, jendea erotu dokumentazioarekin,... Lanbide pobrezia polizia bihurtu egin dute. Helburua lortzen ari dira: oinarrizko errentaren inguruko giro nahasia sortu. Babes sozialaren kontzeptu bera zalantzan jarri arte. Bost axola zaie Lanbideren langileen gaineko presioa eta haserrea areagotzen bada. Baina une honetan helburua bestelakoa da: aurrekontuak kontrolatu, jendea lan merkatu ziztrina behartu, estatistiken datuak hobetu (jende gutxiago eskatzen du oinarrizko errenta), erantzukizun politikoa gainetik kendu. Hona perla: Hirugarren Sektorearentzako legearen zirriborroan, Administrazioak eskatzen die erakunde hauei "prestar especial atención a las situaciones que afrontan quienes, *por distintos motivos*, no acceden a los sistemas de responsabilidad pública procurando que no queden desatendidas sus necesidades más básicas". Babes sozial publikoa kendu aukeratutako gutxi batzuentzat izan ezik, besteentzat benefizientzia. Adio unibertsalismoari, adio berdintasunari! Bestela galdetu Marotori edo Josu Bergarari, gure herriaren sektore bati mespretxua eta gorrotoa erakusten diotenean.

**Aburtoren kurrikuluma: Babes Sozialaren zartailua.** Egun hauetan Bilboko alkatetzarako hautagi izendatu dutenean, bere aldeko komunikabideek aizeratu dute bere sentiberatasun soziala. Bistan da Gai Sozialetarako Departamenduan emandako hilabeteek bere irudia erretzeko bidean jarri dutela, Gemma Zabaletari gertatu bezala. Diskurtso progresista eta eskubideen aldekoaren atzekaldean, ekintzetan bestelako zantzuak ikusi ditugu. Saiatu da PP eta kalean eskubide sozialak defendatzen dituztenen artean jartzen, baina praktikan jarri da (hori bai dotoretasun handiagoz) babes soziala murriztu beharra dagoela esaten dutenen artean: kontziliatuzko laguntzak, larrialdi sozialetarako laguntzak,... Baina larriena Diru- Sarrerak Bermatzeko programan gertatu dena, Lanbide pobrezia polizia izatera eraman duena. Azkena Lanbideren 10.000 mehatxuzko eskutitzak, dirua bueltatzeko eskatuz. Salatu beharra dago nola egin den: berme juridikorik eman gabe, azaldu gabe nondik sortu diren balizko zorrak, jendeari leporatuz zorraren errua... Eta hau kasualitatea, kalean haren dimisioa eskatzen zen une berean, PNV-ek Bilboko alkatetzarako hautagai bihurtzen dute. Holako pertsonaiak garaian garaikoak omen dira: prestazio sozialen kontra eta pobrezia kriminalizatzen dutenek bozkak erakartzeko balio omen dute.

**Nafarroako Oinarrizko Errentaren aldeko plataformaren salaketa.** Hainbat unetan Nafarroako Gobernuak onartu du Oinarrizko Errentaren inguruko iruzurra % 0,7koa dela. Hala ere, neurri berriak iragarri ditu iruzurraren kontra egiteko (haurren eskolarizazioa egiaztatu, lana aktiboki bilatzen ote duten, bikoteen banaketak egiazkoak ote diren, bizilekua iraunkorra, ...). Horretarako baliabide ekonomikoak erabiliko ditu. Oinarrizko Errentaren aldeko Plataformak diru-xahutze hori salatu du, oinarrizko errenta hobetu beharrean. Eta datu batzuk gogora ekarri ditu: pertsona bakar batek 2011an baino % 11 gutxiago jasotzen du, nolatan bizi daiteke 4 kideko familia bat 700 euroekin, bakarrik laguntzen dute 16 bitarteko seme-alabak dituztenak, oinarrizko errenta gutxieneko soldataren azpitik dago.

**Ipar Euskal Herrian prekaritatearen bide beretik.** Krisiaren ondorioak agerikoak dira Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan: ekainean 8.396 pertsonak jasotzen zuten RSA gutxieneko errenta, iaz baino % 5,2 gehiago. Langabeziak oro har egin du gora: 11.746 langabe gehiago zeuden ekainean, iaztik 2,5 puntu gora. Horietatik %41,7k urtebete baino gehiago daramate enplegu bulegoetan izena emanda. 50 urtetik gorakoak dira langabezia dauden gehienak: lautik bat adin multzo horretakoa da.

## **POBREZIA ENERGETIKOA**

---

**Argiaren prezioak gora etengabe.** Hirugarren hilekoan argiaren faktura %11 igo egin da. Elektrizitatearen inguruan gertatzen ari dena eskandalagarria da. Laster negua heldu da, eta, han hemenka, pobrezia energetikoaren inguruko berriak eta txostenak zabalduko dira aurreko urteotan bezalaxe. Salaketak eta aldarrikapenak izan badira ere, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ez dute inongo neuririk hartu, nahiz eta parlamentuek eskatu. Pobrezia energetikoa prekarietate sozialaren beste elementu bat gehiago dago. Jende askok erabat baldintzatua eta mugatua du elektrizitatearen erabilera oinarrizko beharrak asetzeko (temperatura eta argiztapen egokia), eta horrek baditu ondorio larriak pertsonen osasunean eta ongizatean. Baina administrazioentzat ez omen da arazo. Babes soziala gero eta urrunago dago oinarrizko duintasunezko irizpideetatik.

**Pobrezia energetikoa Katalunian.** Pasa den urtean Generalitateak plan bat onartu zuen diru-sarrerarik gabeko pertsonak argia edo gasarik gabe gera ez zitezen azaroa eta martxoaren artean. Plana porrot handi bat izan da. 500 lagunek baino ez zuten erabili. Kalkulatu da 193.000 etxeetan arazoak daudela. Arrazoiak: Dekretuak bakarrik kontuan hartzen zuen fakturen ordainketaren atzerapena. Hori gutxi ez balitz, Espainako Gobernuak Auzitegi Konstituzionalera eraman du Lege dekretu hau. Hona hemen justifikazioa: Madrilek zalantzan jartzen du Generalitatearen gaitasuna zehazteko zeintzuk diren egoera ekonomiko txarrean diren pertsonak, horrek zuzenean kalte egiten dielako sektore elektrikoaren diru-sarrerei. Orain B plana prestatu omen du Generalitateak. Sortu nahi dute "oinarrizko horniduren" funts bat. Horretan udalek, elkarte sozialek, Generalitateak, pertsonen borondatezko ekarpenak eta konpainia elektrikoek dirua jarriko lukete. Funts honekin urtean zehar argindarra, gasa eta uraren fakturak ordainduko lirateke arrazoi ekonomikoak tartean direnean.

## **ANIZTASUNA**

---

**Kendu eta jarri, jarri eta kendu: kapitalismoari pertsonak bost.** Orain Espainiako Bankuak alarma jo egin du. Etorकिन galerak zalantzan jar dezake Espainiako ekonomiaren hazkundera. Holako jendilajearentzat, etorkin ona izanen da ongi esplotatu, eta aldi berean, kontsumitzaile ona dena. Besteak, langabezian geratzen direnak edo babes soziala eskatzen dutenak soberan daude.

## **IRAKURGAI INTERESGARRIAK**

---

**"Milagro del empleo alemán"**. Rosa Luxenburgo Fundazioak frantseraz argitaratu dute oso azterketa gomendagarria kapitalismo sozialaren amaierari buruz. Viento Sur aldizkariak egin du laburtu eta itzuli. Hauxe da lehen zatia. <http://vientosur.info/spip.php?article9426>

**Oinarrizko Errenta Unibertsala eta generoa.** Ez da oso ohikoa bi kontu hauek aldi berean aztertzea. Hona hemen bi jarrera Oinarrizko Errenta Unibertsalaren alde eta kontra, generoaren ikuspegitik. Biek merezi dute irakurtzea:

**Kontra, Patricia Merino, "Renta Básica, precariedad y sistema de género" :**

<http://econonuestra.org/actualidad/item/884-renta-b%C3%A1sica-precariedad-y-sistema-de-g%C3%A9nero.html>

**Alde, Daniel Raventós, "Sobre la renta Básica y la desigualdad de género:**

<http://blogs.publico.es/otrasmiradas/2804/sobre-la-renta-basica-y-la-desigualdad-de-genero/>